

LAU URTEZ BEHEKO KALEAN 1995-1999 MIKELAZULO

1999ko udaberrian jaso genuen Mikelazulo Kultur Elkartearen Madalenetan atera ohi den Oarso aldizkarian isla xume bat izateko deia. Proposamen horri erantzuteko asmoz nauzue hemen. Zer? Eta ni nor naizen? Tira tira, nik ez dizuet zuei galdera metafisikorik egin. Nahikoa duzue kafezale amorratua naizela jakitearekin, mikelakolasaitasuneankafehartzekoazale amorratu bat gehiago, ez besterik.

Mikelazulo zelan definitu? Minutu batzu igaro nituen erantzuna pentsatzen... nondik hasi amaierarik ez duen galdera? Nola sailkatu maitasunezko begirada bat, nola adierazi amaren sabeletik irten ondorengo lehen negarra?... Oso polita baina erantzunik ez. Pentsatzen jarraitu nuen... badakit! Esan nezake, Mikelazulo kultur elkarte irekia dela, esan nezake bertan komunikaziorako eta adierazpen aserako espazio bat duela eskura edonork; esan nezake baita ere, instituzioek kulturaren mundu latz honetan edozein laguntza jasotzeko jarri ohi dituzten oztopoak gaindi, bere baliabideen arabera aukera irekia eskaintzen duela Mikelazulok; esan nezake pintore, antzezle eta musikari ugari izan duela bertan bete lana



kaleratzeko lehen aukera; aipatu nezake, eguneroko borrokan proiektuak garatu eta zabaldu dituen elkarte delako: argitaletxea, antzerki taldea, zenbait talderen funtzioak babestu beste herrialdeetan, sexu lantegia... gauza anitz esan nitzake, eta guztiak egiazkoak, baina ez dut eginen. Gauza horiek guztiak urte osoan zehar burutzen den dinamikarekin ikusi bailitzazke edonork, interes apurtxo bat izanez gero.

Niri egokitu zait honakoa idaztea ordea, eta Mikelazuloren beste aurpegi bat azaleratu nahiko nuke.

Toki sakratua ta
hemen egongo da
etorri, parte hartu,
hautsi anfora
konpleju eta lotsak
utzia alhora
hau irakurtzeko ta
parte hartzeko da
hartuaz denbora
badakigu nora
behera eta gora
Mikelazulora
deskargatuko degu
gure polbora.

(Ibon Zabalak 1995an idatzitako bertsoa)

1995eko uztaila. Komunean eseri eta esaldi bat topatu dut atean izkiriaturik: *agur eta ohore Ibon, gudari maitia*. Oroimenaren hegalekin amildu naiz, ez oso urruti. Izan ere, berak idatzi baitzituen inauguraziorako bertsoak. Ibon.

Mahaia garbitzen hasia naiz, kikera eta edalontzi guztiak biltzen. Lurrera jauzitako lehen hitz eta hunkipenak jasotzen... etorriko dira berriak. Mertxe, lagunduko nauzu? Aupa Rakel. Mikela eraldatu behar dugu une batez, aktuaziorari hasiera emateko.



Beraien lehen aldia da. Poesiak irakurtzeari ekin diote, sutsuki, itsuki. Ene! diot nirekiko, hauen buruko zerga ez da makala... baina pozik nago. Publikoa begiratu dut. Hauentzat ere, lehen aldia ote? Ez ninduke harrituko. Gauza asko irakur daitezke jendearen aurpegietan, aktuazio bat arretaz jarraitzen dutenean.

Ikustezina izan nahiko nuke beraien ageriko sentimendu gordeak errazago kausitzeko.

Zer adierazi nahi duzue zehazki emanaldi honekin? Izan ere, Iker eta Igor bezalako lagunek sarritan prestatzen baitituzte Mikelako emanaldietarako jatorrizko kartelak. Literatur emanaldi bat, musika eta antzerkiarekin nahasturik. Bakardadea izanen da gai nagusia, eta horren inguruan garatuko ditugu gainontzeko elementu guztiak. Igorrek bekainak altxatu eta begiak eroriko bailitzaizkio mintzatu da. Mestizaia kulturala? To! Berezko hizkuntza artistikoak agorturik ote daude...



1996ko abendua. Zein baldintza jartzen dituzue hemen esposizioa egin ahal izateko? Kafea prestatu bitartean galdera entzun duenak barrezka erantzun dio: *Hemen muga bakarra zu zara*. Kanpoko euri ttanttak kandelen artean osatutako aitorten bakoitza islatu nahiko luke, lurra topatu eta betiko desegin artean. Hotzak irudimena estutzen du, bakardadearen aintzira lehor eta gazietan.

Dantza egin dezagun, mahaien artean, edo gainean. Abestuz. Amestuz. Abestruz. Zutaz maitemindu beharko banu, leku hau aukeratuko nuke, hain da lasaia astearte iluntzean... Ene maitea, hemen kondoia mingainean jarri beharko genuke, tamainako hitz ederren isuriketan ez ernaltzeko...

1997ko maiatza. Kubak arretaz begiratzen du esposizio berria. Gaur lagun zaharrez mintzatu gara, aurpegi, izen eta orbain ugari bizi baititu jada Mikelak. Denborak irentsiko gaitu. Guk proiektu berriak asmatuko ditugu denboraren erraietan. Udaberria. Inoiz iritsi ez eta beti iristear dugun ausardia, eromenaren latifundioak. Arratsaldeak ereingo ditugu egunkarien orrietan barrena. Adierazpen askatasuna. Adierazpen askatasuna. Guk ere, bideoa emititu dugu.

*pregúntale a la luna
cuántas noches sin dormir...
si ni siquiera sé tu nombre...*

*A perderle miedo al miedo lo llaman
locura; existen varias definiciones más
para confundir la libertad.*



1998ko azaroa. Herrien Hirugarren Astea. Ekintzen programa inoiz baino zabalagoa eta aberatsagoa. Kultura ezberdinetako jende anitz biltzen da elkarrekiko komunikazioa eta ezagutza bermatzeko. *Kaixo Mohamed, gonbidatuentzat afaria prestatuko diagu?* Kontzertuak, hitzaldiak, ikastaroak, azoka erraldoia, bihotzean gordezko argazkiak, barre algarak... *Nola esan duk? Afrikarrak ere saudade, saudade...* Sentimendu eta kultura anitzen atlas bizia, ah... Mikelako jende anitz beste behin elkarrekin lanean. Nekeak merezi du, merezi du nekeak...

Bizarra hazten da Mikelan, ditiak borobildu; erlojuak iltze bana josten du iraganean segundu bakoitzeko. Jendeak Mikela zeharkatzen du baldosen arteko marrak zapaldu gabe, eta inor ez da konturatzen. Arnasa begiekin hartu eta liburu bat irakurri. Edozein. Ireki dezagun atea. Infusio indiarren oihartzun urrunak belarriak tentetu dizkit, irudimenaren tinpanoak bizkortu. Mikelako mahai honen inguruan eseri eta liburuko orrialdeen artean desagertuko naiz. Topatu nahi banauzu, jo ezazu 94. orrialdera. Dragoia hil eta kristalezko ezpata berreskuratuz gero, kafesnea edan eta jo 35. orrialdera.

1999ko udaberria. Oraitu jaso berri dugu Mikelazulo Kultur Elkartean Madalenetan atera ohi den Oarso aldizkarian isla xume bat izateko deia. Bertatik igaro diren musikari, idazle, antzezle, pintore, esperimendu egile guztien zerrenda egiten saiatu naiz, Mikelaren historiari loturiko adiskide eta pasadizo guztien zerrenda egiten saiatu naiz... ezinezkoa. Hala ere, proposamen horri



erantzuteko asmoz nauzue hemen. Zer? Eta ni, nor naizen? Tira tira, nik ez dizuet zuei galdera metafisikorik egin. Nahikoa duzue kafezale amorratua naizela jakitearekin, mikelakolasaitasuneankafehartzekozale amorratu bat gehiago, ez besterik...

POSTDATA:

Yo también pude haber nacido en otro momento, en otro lugar. Yo también pude haber sido pez, mono o elefante. Pude haber creído todo aquello que no creo, y ser feliz. Pude haber caído en el sopor de una lucha impasible. Yo también pude haber nacido antes de morir en vida, y por qué no, pude haber muerto por otra vida. Pude haber hecho y sido y creído y soñado tantas cosas...

Sin embargo si ahora, en este mi gran o pequeño momento (pero siempre mi) optara por aparcir todo mi odio, todas esas utopías que no alcanzo y a las cuales no renuncio, todos esos recuerdos que como Ismael, quisiera no tener que recordar; si por un momento (éste, mi momento) optara por escoger un "algo" más o menos asequible, "algo" que me recortara una sonrisa (una sonrisa más, o menos), tal vez optara por recordar esa mirada entre las velas, sin champán pero con café, sin violines pero con Silvio de fondo. Tal vez optara por aquella mi primera actuación, frente a un grupo de rostros también impenetrables. Tal vez optara por aquel recital de Artze escuchando el silencio el aire el pasado el inédito imposible intacto y tanto, o aquella en que recité unos versos en euskara, junto a la guitarra de un joven gitano flamenco. Tal vez optara, por una vez, por algo sencillo; tal vez optara por una vez por tí y por mí.

Mikelazulo Kultur Elkartea Beheko Kalea 4
Telef. 943-517002 - Pozta Kutxa 346
Orereta-Errenteria

Ongi etorria zure etxera.

